



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko otsailaren 25a

15. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege integralaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko mugikortasun iraunkorrari eta garraioaren antolamenduari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia presaz egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da museo-eremu txikiei finantziario egokia eman diezaien. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan diharduten zaintzaileen lanaren hezkuntza-alderdia kontuan hartu eta C mailan sar ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoa Osasun-ikerketarako Institutuan sar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZari buruzko Legean Foru Komunitateko langileen atxikipenetan onetsitako deflazio progresiboa harmoniza dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, errefusatzen da osasun sisteman kopagoa ezartzea eta Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio osasunaren arloko gastua presaz azter dezan. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa 2012 Plana bete dezan, Nafarroako ekonomia dinamizatzeko elementu gisa. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (12. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Ama Hizkuntzen Egunen ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxerako eta Julio Caro Baroja Museo Etnologikorako Gobernuak dauzkan planei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Lizarran kultur etxe bat egiteari buruz Nafarroako Gobernuak epe motz eta ertainean dauzkan aurreikuspenei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (15. or.).
- Galdera, jakiteko gaur egun nola dauden banatuta, Iruñeko eta Iruñerriko, Tuterako eta Lizarrako ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan, kultura-gutxiengoetako edo premiak dituzten talde soziokulturaletako ikasleak, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (15. or.).
- Galdera, basozainek 2009an eta 2010ean aurkeztu dituzten salaketen kopuruari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egin (16. or.).
- Galdera, administrazio publikoko teknikarien (adar juridikoa) lanpostuetarako oposizioan pliken sistemen ordez epaimahaiaren aurreko irakurketa bakarraren sistema ezartzeari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egin (17. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lekualdatze-lehiaketa hutsik gelditu da (18. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalako– izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lekualdatze-lehiaketa hutsik gelditu da (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege integralaren proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko mugikortasun iraunkorrari eta garraioaren antolamenduari buruzkoa.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Foru Komunitateko mugikortasun iraunkorrari eta garraioaren antolamenduari buruzko Foru Lege integralaren proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2011ko otsailaren 28ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege

proiektua 2011ko otsailaren 4ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2011ko otsailaren 28ko eguerdiko hama-biak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2009ko martxoaren 30eko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia presaz egin dezan.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia presaz egin dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, eta 2011ko otsailaren 10eko Osoko Bilkuran jabel-

dura bat eztabaidatu ondoren, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroak ere ekin behar die beste autonomia erkidego batzuetan, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoan, ematen ari diren transferentzia-prozesuei, eta badira, orobat, une honetan gaurkotasun handia hartzen ari diren zenbait transferentzia-erreibindikazio; esate baterako, espetxe-arlokoak. Transferentzia Batzordea berehala biltzeko eskaria egin dugu, baina ez da hura biltzeko deialdirik egin.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen egin dezan Transferentzien Batzordea biltzeko deialdia, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan transferentzien arloan sustatu eta garatu beharreko politika orokorra aztertze aldera, zehazki ikerkuntzaren, trafikoaren eta espetxe-erakundearen arloetan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da museo-eremu txikiei finantziario egokia eman diezaien.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita museo-eremu txikiei finantziario egokia eman diezaien.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Parlamentuak 2009an Museoei eta Nafarroako Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legea onetsi izana aurrerabide handia izan zen gure erkidegoak jorratu beharreko helburuak eta ekintzak zehazteko, kultura-zabalkundeko zentro horiei, gure museoei eta Nafarroaren luze-zabalean dauden bestelako museo-eremuei dagokienez.

Nafarroak hainbat museo-baliabide ditu: arte garaikidea, etnografia, arte sakratua, zientzia, museo espezializatuak, aztarnategiak eta bisitatzeko moduko monumentuak. Besteak beste, ondokoak aipa ditzakegu: Nafarroako Museoa, Lizarrako Julio Caro Baroja Museo Etnografikoa, Zubietako Errotaren Ekomuseoa, Izabako Oroipe-naren Etxea, Artetako Museo Etnografikoa, Baztango Jorge Oteiza Museo Etnografikoa (Elizondo), Burgiko Almadiaren Museoa, Elizbarrutiko Katedraleko Museoa (Iruña), Tuterako Deanaren Jauregia Museoa, Orreagako Museoa, Tulebrasko Monasterioko Museoa, Corellako Arrese Museoa, Jorge Oteiza Museoa, arte garaikideko Muñoz Sola Museoa, Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoa, Erriberriko Errege Jauregia, Eunateko

Santa Maria Eliza, Andelos erromatar hiria, Tabaroko Museoa, Uharte Buldain Fundazioa, Karlismoaren Museoa, Ramón y Cajalen sortetxea, Pablo Sarasateren Areto-museoa, Julian Gayarre Etxe-museoa.

Museo-eremuek erreforma txikiak egin dituzte azken urteotan, jendearentzat zabalik egon behar duen museo orok bete beharreko gutxienekoetara egokitzen joateko, eta Nafarroako Gobernuak Viának Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren bidez inbertsioetarako emandako laguntza izan dute horretarako.

Halere, museo-baliabide guztiak ezin dute berdin garatu Museoei eta Nafarroako Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legean xedatutakoa, museo-eremu apalenek benetako arazoak baitituzte legean xedatutakora egokitzeo.

Legearen laugarren artikulua definitzen ditu zentro horiek:

“Bilduma museografiko iraunkorrak dira pertsona fisiko edo juridiko batek irabazi asmorik gabe kontserbatzen dituen kultur ondasunen multzo egonkorak, zeinetan ezin diren bete, funtsen kopuru txikia, baliabide eskasia edo teknikaririk eza dela-eta, museoei esleitutako eginkizun guztiak, betiere haien titularrek bermatzen badituzte, gutxienez, jendearen bisitak ordutegi egoki eta finkoan, funtsak kontserbatu, zaindu eta erakusteko oinarrizko baldintzak eta ikertzaileentzako erabilera.”

Titularrek arauan ezarritako gutxieneko horiek betetzeko gauza izan behar dute, baina malgutasunez jokatu behar dugu 2009an onetsitako legeko beste xedapen batzuk aplikatzeko epeei dagokienez.

Kultura eta Turismo Departamentuak bertan behera utzi ditu 2010eko ekitaldian Foru Komunitateko museoentzako eta bilduma museografiko iraunkorrenzako hiru laguntza-ildo ohikoak, kultur jarduerak eta hedapen-jarduketak egitekoak eta eraikinetako eta instalazioetako inbertsioak egitekoak. Horrek zeharo baldintzatzen eta zailtzen du museo txiki baten biziraupena.

Nafarroako Parlamentutik museo-eremu horien egoera hobetu behar dugunez, parlamentu-talde honek ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkurak onetsi dezan:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du museo-eremu txikiei finantzaketa egokia eman diezaien, beste museo batzuek duten bezala (Nafarroako Museoa, Karlismoaren Museoa, Jorge Oteiza Fundazio Museoa, Uharteko Arte Garaikidearen Zentroa...).

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuaren laguntzak jasotzeko aukera eman diezaien museo edo bilduma museografiko iraunkor gisa har daitezkeen eskatzeko izapidea egiten ari diren museo-eremuei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du museo-eremu bat behin-behinekoz museo edo bilduma iraunkor gisa hartzeko bost urteko epea, zeinean legearekiko gabeziak zuzendu behar baitira, luza dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du museo-eremu txikiak hartzen dituzten eraikinak azter ditzan eta irisgarritasunaren eta segurtasunaren arloko legedira egokitzen lagun diezaien, kasuan-kasuan irtenbide bideragarriak emanaz.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan diharduten zaintzaileen lanaren hezkuntza-alderdia kontuan hartu eta C mailan sar ditzan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikastetxeetan diharduten zaintzaileen lanaren hezkuntza-alderdia kontuan hartu eta C mailan sar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, honako mozio hau aurkeztu dute, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren mendeko erakunde autonomoen plantilla organikoak ezartzen du zaintzaile lanpostuak D mailakoak izan direla, eta halako lanpostuak daude bai Hezkuntza Departamentuan bai Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuan ere.

Hezkuntza Departamentuko lanpostuetan honela definitzen da zaintzailea: ikastetxeei aldi batean laguntzeko baliabide bat, ezgaitasun bati lotutako hezkuntza-premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleei laguntza emateko.

Zaintzaileek, irakasleekin eta bestelako profesionalekin lankidetzan, laguntza-zerbitzu osagarria ematen dute, eta ezgaitasuna duten ikasleei laguntzen diete beren autonomia eta garapen pertsonala sustatzen eta curriculumean sartzeko aukerak sustatzen.

Zaintzaileen jarduketara-esparru dira Hezkuntza Bereziko Zentroak eta ezgaitasun bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxe arruntak.

Hezkuntzari buruzko Lege organikoak berarizko aurreikuspen bat jasotzen du hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei zerbitzu ematen dieten langileen kualifikazioari buruz. Zehazki, 72.1 artikuluan ezartzen du hezkuntza-administrazioek kasuan kasuko espezialitateetako irakasleak eta

profesional kualifikatuak edukiko dituztela ikasle horiei laguntza emateko.

Azken urte hauetan, anbigutasun handiagoa gertatu da zaintzailearen eginkizunak zehazterakoan, lan egiten zen zentroaren arabera. Halatan, laguntza-lan horren barruko eginkizunak gero eta erantzukizun handiagokoak dira, eta sarritan laguntza-lan soiletik harantzago doaz, medikuntzaren arlokoak izateraino.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plantilla organikoan bada beste lanpostu bat, zaintzaile gerontologikoa (pertsonei zaharrentzako laguntza), zeinaren eginkizunak zaintzaile lanpostuaren eginkizunekin lotuta baitaude inondik ere (ezgaitasuna duten pertsonen eta hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrei laguntzea); izan ere, kasu batean nahiz bestean, laguntza eta arreta ematen zaie beren egoerarengatik laguntza partikularra behar duten pertsonen, baina kasu batean prestakuntza berariazkoa eskatzen da (Lanbide Heziketako erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikari titulua, Osasunaren lanbide arlokoa, Laguntza Soziosanitarioko teknikari titulua, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen lanbide arlokoa, edo titulu baliokide bat), eta kasu honetan, aldiz, ez da bate-re titulaziorik eskatzen hezkuntza premia bereziak dituzten haurrei zerbitzu emateko. Lehen begiratuan ez du ematen azken kasu honek zaharren laguntzak baino prestakuntza txikiagoa behar duenik.

Ezinbestekoa da Hezkuntza Departamentuak beharrezkoak diren tresnak ematea zaintzaileei, gutxieneko kalitatearekin egin ahal izan dezaten eginkizun gero eta konplexuago hori, langile horiek jorratu beharreko diziplina guztiak hartzen ditu-

en prestakuntza integral eta etengabe bat aplikatuz.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeetan lanean ari diren zaintzaileen hezkuntza-alderdia kontuan hartuta, lanpostu horiek Hezkuntza Departamentuari atxiki diezazkion, eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, kontuan hartuta zaintzaileek betetzen dituzten eginkizunak –hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen autonomia eta gizarteratzea–, aintzat har dezan bete behar duten lanbide-profilari hobeki lotutako titulazio berariazko baten beharra eta C mailan sar ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontrataziorako irizpide garbiak presta eta argitara ditzan, halako moduan non gardena izanen baita eta zerrendak publikoak eta ezagunak izanen baitira lanpostu horietarako izangaiantzat.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du zaintzaileei aukera eman diezaien Irakasleen Prestakuntzarako Urteko Planeko prestakuntza jasotzeko, haien prestakuntza etengabea ziurtatuz hartara.

Iruñean, 2011ko otsailaren 15ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoa Osasun-ikerketarako Institutuan sar dezan.**

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoa Osasun-ikerketarako Institutuan sar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Honen bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoa Osasun-ikerketarako Institutuan sar dezan.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitateak azaroaren 5ean iragarri zuten Osasun-ikerketarako Institutuaren sorrera.

Institutu horrek helburu du "indarrak batzea" osasunari lotutako ezagutza zientifikoa bultzatzea eta sustatzea eta gaixotasunak tratatzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak osasun-ikasketen unibertsitate-eskola dauka, eta bertan osasunaren esparruko ikerketak egiten dira. Osasun-zientzien departamentuan doktoretza-programa

mak egiten dira orobat, eta medikuntzaren nahiz biomedikuntzaren arloko doktoreak eta ikertzaileak prestatzen dira bertan; ikerketa-lan handia ere egiten ari da, teknologiaren ikuspuntutik medikuntzarekin lotuta dagoen guztiaz denaz bezainbatean.

Institutu hori fundazio batetik abiatu da, zeinaren helburua baita osasun arloko ikerketa eta, oro har, osasunarekin lotutako ezagutza zientifikoa eta herritarren gaixotasun eta gaitz guztien tratamendua garatzea, sustatzea eta horretan aurrera egitea. Fundazioaren patronatuari dagokio onestea institutuaren politika zientifikoa, plan estrategikoa eta ikerketa-jarduerak. Patronatuak hamalau kide ditu: bost Nafarroako Gobernuak kideak dira, bost Nafarroako Unibertsitateko kideak, eta gainontzeko laurak, enpresa pribatuetakoak.

Beharrezkoa eta komenigarria da Nafarroako Foru Komunitatean egiten den ikerketaren alorreko lidergoa publikoa izatea, eta horretarako, Nafarroako Gobernuak pisu handiagoa izan behar du Nafarroako Osasun-ikerketarako Institutuaren Fundazioaren patronatuan.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Osasun-ikerketarako Institutuan Nafarroako Unibertsitate Publikoa sar dezan.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoa Institutu horren fundazioaren patronatuko kide izan dadin.

3. Alderdi pribatuak baino pisu handiagoa izan dezan alderdi publikoak Nafarroako Osasun-ikerketarako Institutuaren Fundazioaren Patronatuan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZari buruzko Legean Foru Komunitateko langileen atxikipenetan onetsitako deflatazio progresiboa harmoniza dezan.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita PFEZari buruzko Legean Foru Komunitateko langileen atxikipenetan onetsitako deflatazio progresiboa harmoniza dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu dute, Erregelamenduko 185. artikuluan xedatuarekin bat. Mozioa otsailaren 17ko Osoko Bilkuran eztabaidatutako jabeldura baten ondorio da, hain zuzen ere fiskalitatearen arloan eta 2011ko lan-atxikipenei PFEZko tarifaren deflatazioa aplikatzaren arloan Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoaren ondorio.

Nafarroako Parlamentuak, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea nahiz horrekin batera doan zerga arloko neurriei buruzko legea eztabaidatzeko eta onesteko izapidean,

PFEZari buruzko Legeko 59. artikulua aldatzea onetsi zuen, zerga horren tarifa modu progresiboa deflatazko. Legea 2011ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean, eta deflatazio horrek 2011ko zergaldi osoari eragiten dio.

Batzordean eginiko bozketan, UPNk aurkako botoa eman zuen, errenta guztiei deflatazio bera aplikatu nahi zielako, errenta txikia, ertaina edo handia izan. UPNk emandako aurkako botoa gorabehera, gainontzeko taldeek azkenik onetsitako aldaketak deflatazioa onetsi zuen errenta txiki eta ertainetarako, errenta handiak bazter utzita.

Ekonomiako kontseilariak otsailaren 17ko Osoko Bilkuran mozioa eztabaidatu zenean adierazitakoaren arabera, argi dago Nafarroako Gobernuak ez duela asmorik PFEZari buruzko Erregelamenduko 71. artikulua aldatzeko –horren bidez langileen nominetako atxikipenak arautzen dira– eta, hartara, legean onetsitako deflatazioa, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, urtarrileko eta hurrengo hilabeteetako nominen atxikipenetan aplikatzea eragozteko, eta 2011ko errenta-aitorpena egin arte atzeratzeko, zeina 2012ko udaberrian egingen baita.

Mozioaren testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premiaz alda dezan PFEZari buruzko Erregelamenduko 71. artikuluko atxikipentaula, PFEZari buruzko Legeko 59. artikuluan onetsitako deflatazio progresiboa harmonizatze aldera eta Foru Komunitateko langileek onetsi den deflatazioaren onura izan ahal dezaten 2011ko nominetan egiten zaizkien atxikipenetan eta, horrenbestez, ez dezaten erosahalmenik gal.

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba eta Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, errefusatzeko da osasun sisteman kopagoa ezartzea eta Nafarroako Gobernuari exijitzen zaio osasunaren arloko gastua presaz azter dezan.**

### *CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez errefusatzeko da osasun sisteman kopagoa ezartzea eta Nafarroako Gobernuari exijitzen baitzaio osasunaren arloko gastua presaz azter dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak orain dela aste batzuk Madrilen egindako agerraldi publiko batean adierazi zuen osasun sisteman kopagoa ezartzearen alde dagoela, "baterako erantzukizun-formulen bidez; adibidez, barneratze eta mantenuarengatik gutxienezko konpentsazio tasaren bat ezarrita."

Halere, proposamen hori konponbide erraz, osatugabe eta bidegabe izanen litzateke gaixoei eta profesionalei begira, baldin eta aurretiaz osasun arloko gastua efizientzia eta kalitate irizpideekin aztertzen ez bada, 2010eko ekainean lansari-ei, inbertsio publikoari eta mendetasunarentzako gizarte-prestazioei ezarritako murrizketak bezala.

Une honetan inoiz baino beharrezkoagoak dira aurrezpenaren kultura, gastuaren arrazoizkotasu-

narena, sakrifizioarena eta esfortzuarena. Familiek urteak daramatzate aurrezten, eta aurrezpen hori, zeina ezinbestekoa baita, Administrazio Publiko guzti-guztietara hedatu behar da lehenbailehen.

Herritarrek eta ez beste inork bere gain hartu beharreko ezarpenak eta tasak igo baino lehen, osasun-sistema aldatu beharra dago, inbertitutako azken zentimoaren efizientzia ziurtatuta, ez baita ahaztu behar diru hori herritarren patriketatik ateratzen dela, zergak direla medio. Kudeaketaren eragingarritasuna muturreraino zaindu behar da, eta erabaki politikoa hartzearen zain urteak egin gabe daramatzaten erreformei ekin behar zaie.

Erabaki garrantzitsuak hartzeko garaia da, une hau ez baita areto-eztabaiden eta alderdikarien sasoa. Epe motzeko interesen eta interes partikularren aurretik jarri behar dira herritarrei zerbitzu ematearen espiritua eta erantzukizuna. Adostasunaren ordua da, itunak egitekoa, onura politikoa ateratzean pentsatu gabe, hauteskunderi begira hortik atera dezakegun onurari erreparatu gabe laguntzekoa. Egin beharrekoa egiteko ordua da, herritarrak aspertzen eta haien motibazioa galaztzen dituzten eztabaida erretorikoak albo batera uzteko ordua.

Alderdi politikoen arteko oinarrizko akordioa behar da, berehala ekin ahal izate aldera, aderez eta erabakitasun politikoz, gastu publikoaren eta zerbitzu publikoen arloan lehenbailehen egin beharreko aldaketei.

Hori dela-eta, CDNk ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko da, herritarrei beste zama ekonomiko bat jarri nahi dien neurrian, osasun-sistemaren kopagoa ezar dadila, eta Nafarroako Gobernuari exijitzen dio lehenbailehen berrikus dezan osasun arloko gastuaren kudeaketa, efizientzia eta kalitate irizpideak baliatuta, bai gaixoei bai profesionalei begira.

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa 2012 Plana bete dezan, Nafarroako ekonomia dinamizatzeko elementu gisa.**

### *CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroa 2012 Plana bete dezan, Nafarroako ekonomia dinamizatzeko elementu gisa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroa 2012 Planaren jarraipenari buruzko bigarren txostenak –2009ko martxoaren 17an argitaratu zen– zioen plan horrek zuzeneko 25.173 lanpostu eta zeharkako 40.000 inguru lanpostu sortuko zituela; guztira, 65.200 lanpostu.

Nafarroa 2012 Plana 2008ko maiatzaren 23an onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak. Planean aurreikusita zegoen 4.508 milioi euro inbertitzea “2008tik 2011ra bitarte,” Nafarroaren ekonomia bultzatzeko eta dinamizatzeko xedez, hori egitea bereziki beharrezkoa baita bizi dugun krisi ekonomikoaren testuinguruan.

Nafarroa 2012 Plana UPNk, PSNk eta CDNk sustatu zuten, hala Nafarroako Gobernuaren baitan nola alderdien arteko akordioaren bidez, eta azkenik parlamentu-taldearen babesarekin onetsi zen, aurkako botorik gabe. Planak erakunde ekonomiko eta sozialen –CEN, UGT eta CCOO–

babes espresa ere izan zuen. Hortaz, planak babes sozial eta politiko handia izan zuen.

CDNkook uste genuen, eta oraindik ere uste dugu, Nafarroa 2012 Plana beharrezkoa eta egokia dela. Nafarroa krisiaren aurkako neurrietan berriz ere aitzindari izatea lortu zen une horretan, eta Espainiako Gobernua, bitartean, krisi hitza aipatzea ekiditeko eztabaida terminologikoetan murgilduta zegoen. Hartara, Nafarroan, indar politikoak eta erakunde ekonomiko eta sozialak gai izan ginen nork bere neurrian laguntzeko, “gure erkidegoan inoiz egin den inbertsio-ahalegin handienari, Nafarroa 2012 Planari” behar zuen bultzada ematearren.

Bada, gaur, planean ezarritako 2008-2011 epeko azken urtean sartu garelarik, ezarritako zenbakiak eta helburuak lortzetik oso urrun gaude: aurreikusitako 4.500 milioietatik, 1.300 milioi euro soilik inbertitu dira. Eta, logikoa denez, inbertsio-ezaren ondorioa izan da ez direla aurreikusitako 65.200 lanpostu horiek sortu, langabezia Nafarroan urte askoan ikusi ez den bezala hazten ari den une batean.

Gaur esan dezakegu ez direla egiten hasi Nafarroa 2012 Planean lehentasunezko obratzat hartutako obren ehuneko 40. Nafarroako Gobernua, bizkitartean, Espainiako Gobernuak bere garaian egin zuen legez, eztabaida terminologiko batean jartzen ari da bere indarra, ea aurretiazko administrazio-izapideak nahikoa ote diren betetzemaitzat hartzeko, ala plana 2012ko abenduaren 31n bukatzen ote den egiazki, zeina berritasuna baita, zeren dokumentazio guztian, planaren testutik beretik hasi eta Nafarroako Gobernuak eginitako ohar publiko eta jarraipen-txosten guzti-guztietan hitzez hitz aipatzen baita “2008-2011 eperako obren exekuzioa.” Edozein modutan ere, Nafarroako Herri Lanetako Enpresen Elkar-teak orain dela aste batzuk esaten zuenez: “Nafarroa 2012 Plana ia-ia geldiarazita dago.”

Halatan, Nafarroa 2012 Planaren helburua baldin bazen sektore publikoak eta administrazioek konfiantza sorraraztea eta Nafarroan enplegua sortzeari eta mantentzeari bultzada bat ematea, Nafarroako Gobernuak plana behar ez bezala kudeatu izana eta plana garatzeko ezarritako helburuak bete ez izana adoregabetsuna eta ezkor-

tasun gero eta handiagoa sortzen ari da, inondik ere, Nafarroako enpresen artean.

Hori dela-eta, CDNk ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroa 2012 Plana bete dezan, Nafarroako ekonomia 2008-2011 epean

dinamizatzeko elementu gisa eta enplegua sortzeko tresna gisa, ulertuta betiere plan horretan aurreikusitako helburuak 2011ko abenduaren 31rako bete behar direla.

Iruñean, 2011ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

---

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Ama Hizkuntzen Egunaren ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Ama Hizkuntzen Egunaren ospakizunarekin, berariaz Nafarroako bi hizkuntza ofizialei, gaztelania eta euskarari, dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du asmoa duela irmoki lan egiteko Nafarroako ondarea den euskararen egoera hobetze aldera.”

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxerako eta Julio Caro Baroja Museo Etnologikorako Gobernuak dauzkan planei buruzkoa.***ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Santo Domingo zahar-etxerako eta Julio Caro Baroja Museo Etnologikorako Gobernuak dauzkan planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak orain dela gutxi Lizarrako hirira egindako bisitan, heda-

bideek galdetu zioten hiriarentzat, merindadearentzat eta Nafarroa osoarentzat interes handikoak diren bi programari buruz: zahar-etxearen etorkizuna, gaur egun Santo Domingon baitago, eta Julio Caro Baroja Museo Etnologikoaren behin betiko egoitza. Bere erantzunean, Gobernuko lehendakariak talde politikoen arteko adostasuna eskatu zuen, besterik zehaztu gabe.

Harrigarria da lehendakariaren erantzuna, bi proiektu horien aurrekariak ikusita. Lehendabizikoa Nafarroa 2012 Planean dago jasota, eta ematen zuen talde guztiak ados zeudela zahar-etxe berria San Jeronimon jartzeko. Bigarrenaren kariatara mozio bat aurkeztu zen berariaz Parlamentu honetan, eta gehiengoz erabaki zen "Nafarroako Gobernua premiatzea egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan".

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Zer asmo ditu Nafarroako Gobernuak bi programa horiei begira?

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Lizarran kultur etxe bat egiteari buruz Nafarroako Gobernuak epe motz eta ertainean dauzkan aurreikuspenei buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Lizarran kultur etxe bat egiteari buruz Nafarroako Gobernuak epe motz eta ertainean dauzkan aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, Batzordean ahoz erantzuteko galdera hau egiten du, Lizarran kultur etxe bat egiteko aurreikuspenei buruz:

Azken bosturtekoetan zehar, Nafarroak kultur etxeen programa bat garatu du, etengabe, biztanle-gune askotan.

Gisa horretako espazio bat –beharrizanen gutxieneko programa bat eta, besteak beste, ondokoak hartzen dituena: gune eszenikoa, erakusketen aretoa, liburutegia eta erabilera anitzeko zenbait gela– bereziki beharrezkoa da 10.000 biztanletik gorako herrietan, programazio jarraitua baitute.

Gisa horretako azpiegitura bat ez duten herrien artean Lizarra dago, izen bereko merindadeko hiriburua. Hori ikusita, eta Nafarroarako programazio orokorraren testuinguruan, ondokoa jakin nahi da:

- Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen ditu epe motz eta ertainean Lizarrako hiriarentzat?

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, jakiteko gaur egun nola dauden banatuta, Iruñeko eta Iruñerriko, Tuterako eta Lizarrako ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan, kultura-gutxiengoetako edo premiak dituzten talde soziokulturaletako ikasleak.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko gaur egun nola dauden banatuta, Iruñeko eta Iruñerriko, Tuterako eta Lizarrako ikastetxe publiko

eta pribatu itunduetan, kultura-gutxiengoetako edo premiak dituzten talde soziokulturaletako ikasleak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, eskolatzeko-prozesuari buruzko ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Eskolatzeko-prozesua da urtean zehar egiten diren arteko garrantzitsuenetariko bat. Lehen datuak esku artean hartuta eta kontuan hartuta

Parlamentuaren jarduera martxoan bukatzen denean ezin izanen dela galdera hau egin, ondokoa jakin nahi dut:

- Nola daude banatuta, Iruñeko eta Iruñerriko, Tuterako eta Lizarrako ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan, kultura-gutxiengoetako edo premiak dituzten talde soziokulturaletako ikasleak?

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

---

## **Galdera, basozainek 2009an eta 2010ean aurkeztu dituzten salaketen kopuruari buruzkoa.**

**ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, basozainek 2009an eta 2010ean aurkeztu dituzten salaketen kopuruari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

- Basozainek zenbat salaketa aurkeztu dituzte 2009an eta 2010ean?

- 2009an eta 2010ean izapidetutako zenbat salaketa dira basozainek jarriak?

Iruñean, 2011ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz



## **Galdera, administrazio publikoko teknikarien (adar juridikoa) lanpostuetarako oposizioan pliken sistemaren ordez epaimahaiaren aurreko irakurketa bakarraren sistema ezartzeari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, administrazio publiko teknika-rien (adar juridikoa) lanpostuetarako oposizioan pliken sistemaren ordez epaimahaiaren aurreko irakurketa bakarraren sistema ezartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak ekainaren 16an emandako 91/2008 Ebazpenaren bidez onetsi zen administrazio publiko teknika-ri (arlotu juridikoa) izateko lanpostuak oposizio bidez betetzeko deialdia.

Deialdiko 6.5 oinarrian ezartzen denez, bigarren eta hirugarren ariketak plika sistemaren bidez eginen dira.

Nafarroako Parlamentuak bi mozio onetsi ditu 2010ean (maiatzaren 13an eta ekainaren 25ean), zeinen bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitu funtzio publikoan sartzeko oposizioetako deialdietan pliken sistema erabil dezan, oposizioan parte hartzen dutenen anonimotasuna ziurtatzeko.

Halere, 2010eko martxoaren 23an, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak 59/2010 ebazpena eman zuen, zeinaren bidez aldatu baitzuen 91/2008 Ebazpenaren bidez deitutako oposizioko pliken sistema, halako moduan non ariketak ekitaldi publikoan irakurri beharko baitziren epaimahaiaren aurrean.

Ebazpen horretan ez da justifikatzen zer dela-eta egin den epaimahaiaren aurrean oposiziogileen anonimotasuna bertan behera uzten duen aldaketa hori.

Oposizio horrek ika-mika sortu du hedabideetan.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer arrazoi egon da pliken sistemaren ordez epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzeko?

- Nor izan da edo nortzuk izan dira pliken sistemaren ordez epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzearen arduradun politiko edo teknikoak?

- Parlamentuan onetsitako bi mozioetan –bat gehiago handiz onetsi zen, eta bestea aho batez– Nafarroako Gobernuak premiatzen zen funtzio publikoan sartzeko oposizioetako deialdietan pliken sistema erabil dezan. Zer arrazoi egon dira bi mozio horiek ez betetzeko?

- Posible izanen zen ia azken apirillean argitaratutako deialdia aldatzea, berriz ere pliken sistema ezartzeko eta 2010eko azken hiruhilekoan egindako azterketetan izangaien anonimotasuna bermatzeko?

- Beste zer oposizio-deialdietan aldatu da, aldatu baldin bada, pliken sistema, horren ordez epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzeko?

Etorkizunean:

- Nafarroako Gobernuak pliken sistema, eta ez besterik, erabiliko al du, epaimahaiaren aurrean oposiziogileen anonimotasuna ziurtatzeko?

Iruñean, 2011ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.**

**Lekualdatze-lehiaketa hutsik gelditu da**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak emandako txostena, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa –deialdia 2011ko urtarrilaren 21eko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, ERABAKI DA:

1. Jakinaren gainean dagoela adieraztea, aipatu deialdian parte hartzeko Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean eskaerarik aurkeztu ez izanari dagokionez.

2. Adieraztea hutsik gelditu dela Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio teknikaria izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Deialdi hau Mahaiaren 2010eko abenduaren 29ko erabakiaren bidez onetsi eta 2011ko urtarrilaren 21eko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalako– izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.**

**Lekualdatze-lehiaketa hutsik gelditu da**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak emandako txostena, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalako– izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa –deialdia 2011ko urtarrilaren 21eko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2011ko urtarri-

laren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, ERABAKI DA:

1. Jakinaren gainean dagoela adieraztea aipatu deialdian parte hartzeko Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean eskaerarik aurkeztu ez izanari dagokionez.

2. Adieraztea hutsik gelditu dela Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikaria –teknikari diplomadunen eskalako– izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehia-

keta bidez betetzeko deialdia. Deialdi hau Mahaia-  
ren 2010eko abenduaren 29ko erabakiaren bidez  
onetsi eta 2011ko urtarrilaren 21eko 14. Nafarroa-  
ko Aldizkari Ofizialean eta 2011ko urtarrilaren  
10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-  
lean argitaratu zen.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-  
kari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean  
argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

